



Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 54. bilera

54ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2013ko apirilaren 16a/ 16 de abril de 2013 Gobernu Batzordearen Sala/Sala de Comisión de Gobierno 18:30etan / A las 18:30 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	20:30etan / A las 20:30 horas
Harremanetarako pertsona Persona de contacto	Leire Sarobe (Haizea Ikerketa S.L.)
Telefonoa Teléfono	943 392229
Helbide elektronikoa Correo electrónico	haizea@haizeaikerketa.com
Gai-zerrrenda Orden del día	1. Aurreko aktaren onarpena 2. Hondakinak: udalaren aurkezpena 3. Emausen gaiari buruzko proposamena 4. Norberak lekarkeena 1. Aprobación del acta de la última reunión 2. Residuos: presentación del Ayuntamiento 3. Propuesta de Emaus sobre el tema 4. Ruegos y preguntas
Parte hartu dute Asistieron	IAKeko taldeetako 12 kideez gain, ingurumen zinegotzia, 2 udal ordezkari tekniko eta idazkaritza teknikoko ordezkari 1. 12 personas de entidades integrantes del CAMA, además del concejal delegado de medio ambiente, 2 representantes del cuerpo técnico municipal y 1 persona de la asesoría técnica.
Etorri ez direlako desenkusatu dira Excusaron su asistencia	INGURUGELA-CEIDA (Ángel Cantera) ESKOLAKO AGENDA 21 (Xabier Insausti) UGATZA ORNITOLOGIA ELKARTEA (Josema Verdugo) INGEBA (Juan Antonio Saez) ARANZADI (Jon Etxezarreta)

Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria**/ Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

Axier Jaka (BILDU. Ingurugiro Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab**/ Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

ARALAR (Lorentxo Garmendia)

ATEA (Aitor Gonzalez)

ATEA (Idoia Lekue)

DONOSTIA BIZIRIK (Sergio Barreiro)

EAJ-PNV (Martin Ibabe)

EMAUS (Javier Pradini)

EMAUS (Begoña Cabaleiro)

EGUZKI (Juan M^a Beldarrain)

FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA (Txema Hernandez)

HARITZALDE (Marko Sierra)

PSE-EE eta SAN MARCOS MANKOMUNITATEA (Denis Itxaso)

UPV/EHU Departamento de Economía Aplicada (Amaia Lizarralde)

Udal Teknikariak / Técnicos municipales

Iñaki Irurtia (Ingurumen Saileko Zuzendaria/Director del Departamento de Medio Ambiente)

Ana Juaristi Ana Juaristi (Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasun Zerbitzuaren Burua/Jefa del Servicio de Calidad Medioambiental y Sostenibilidad)

Idazkaritza Teknikoa / Secretaría Técnica

Haizea Ikerketa S.L. (Maider Etxaide)

Ingurumen zinegotziak, ongietorria egin ondoren, saio hau hondakinen inguruko saio monografikoa dela adierazten du. 1. Aurreko aktaren onarpena Akta onartzen da 2. Hondakinak: udalaren aurkezpena Ingurumen zinegotziak udaletxearen hondakinen egungo politika eta honen inguruko irizpideak aurkezten ditu eta eransten du udaletxearen helburua dela, 2008ko Europako Zuzentaraua bere eginez, Donostia Zero zabor Hiria bilakatzea. Ondoren, politika honen baitan burutzen ari diren ekintzen berri ematen du, besteak beste, Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Departamentuen arteko Batzorde Tekniko baten sorkuntza, Joko Garbia markaren sorkuntza, 2016an %60 birziklatzea helburu duen Let's go kanpaina, hondakinen prebentziorako eta birziklapenerako ekintzak, Garbigunea eraikitzeko lursail baten eskaintza Atotxaerrekan, olio bilketa hiri osora zabaltzea (udan martxan jartzea aurreikusia), 2014 bitarte 15 konpost gune sortzea auzo konpostaren egitasmoaren baitan, 80Tm organiko hondakinen fluxutik aterako dituen. Prebentzio arloan pixoihal berrerabilgarrien, ur pitxarren, tupper berrerabilgarrien, Festa Berde edo Zero Zabor Jaiei ingurukoak ere azaldu ditu. Horrekina batera, talde politiko guztien multzoarekin hondakinen biltetarako sistema baten diseinuaren inguruko adostasunaren bila lanean dabilazala azaltzen du, 2016an %60ko birziklapen tasara iristeko, eta horrek, egungo ordenantzaren aldaketa dakarrela eransten du. 3. Emausen gaiari buruzko proposamena Emaus Fundazioko Javier Pradinik Gipuzkoako tamaina handiko hondakinen tratamendu sistema berritzaile baten inguruko aurkezpena egiten du. Hondakinen Zuzentaraua ekartzen du gogora, honek ordena hierarkikoaren goi mailan birziklapena bultzatzen baitu. Halaber, tamaina handiko hondakina zer den eta bere baitan zein zatiki dauden definitzen du. Ondoren, gaur egun nagusi diren bilketa motak deskribatzen ditu eta eransten du bide/kale bazterreko bilketa desegokia dela, biltzeko era horrek birziklapena bultzatzen ez duelako. Gainera, atez ateko bilketa sistemen eta gaur arte ohikoa izan den tamaina handiko hondakinen bilketa modua batera ezinak direla adierazten du. Bere aburuz, langileek, edo hiritarrak berak, aurretik desmuntatzea ahalbidetzen duen sistema batek derrigorrezkoa behar luke izan, horixe baita berrerabilpen portzentaje handiak lortzeko modua. Berrerabilpena %20ra eramatea posible	El concejal de Medio Ambiente, tras saludar a los asistentes, explica que la reunión versará en torno al monográfico de residuos. 1. Aprobación del acta de la última reunión Se aprueba el acta 2. Residuos: presentación del Ayuntamiento El concejal de Medio Ambiente presenta la política actual del Ayuntamiento en el tema de los residuos y explica que el objetivo del Ayuntamiento, haciendo suya la Directiva europea, es convertir a Donostia en una ciudad de Residuo Cero. A continuación informa de las acciones que están desarrollando en el marco de esta política, entre otras cuestiones, la creación de una Comisión Técnica entre los Departamentos de Infraestructuras y Servicios Urbanos y de Medio Ambiente, la creación de la marca Joko Garbi, la campaña Let's go con objetivo de llegar a una tasa de reciclaje del 60% en 2016, acciones para la prevención y reciclaje, oferta de suelo en Atotxaerreka para la creación de un Garbigune, extender la recogida del aceite a toda la ciudad (prevista su puesta en marcha para verano), creación de 15 emplazamientos para compostaje en el marco de la iniciativa de compostaje comunitario, con lo que se espera desviar 80 Tm de orgánico del flujo de los residuos. Menciona asimismo otras iniciativas en materia de prevención: pañales ecológicos, jarras de agua, tupperes reutilizables, Fiestas Verdes o Fiestas Residuo Cero. Añade que se está trabajando para buscar un acuerdo con el conjunto de grupos políticos para el diseño de un sistema de recogida de residuos con objetivo de llegar a una tasa de reciclaje del 60% en 2016, lo que también conlleva el cambio de ordenanza actual. 3. Propuesta de Emaus sobre el tema Javier Pradini de la Fundación Emaus realiza la presentación en torno a un sistema innovador de tratamiento de residuos voluminosos para Gipuzkoa. Hace mención a la Directiva sobre los residuos, la cual impulsa la reutilización en el nivel superior del orden jerárquico y define lo que es un residuo voluminoso así como las fracciones que incorpora este tipo de residuo. A continuación describe los tipos de recogida actuales preponderantes y alega la falta de idoneidad de la recogida vial por tratarse de un tipo de recogida nada favorable a la reutilización. Además, pone de relieve la incompatibilidad existente entre los sistemas de recogida PaP y el mantenimiento de la recogida de voluminosos como se realiza hasta hoy. En su opinión
--	---

da haltzariak hiritarrek desmuntatzen badituzte eta %30era hel daiteke langileak eurak baldin badira hori egiten dutenak. Horrekin batera, kudeaketa integraleko eredu baten diagrama erakusten du, zeinak Ekocenterrak berrerabilpenerako prestaketarako eta konponketarako azpiegitura gisa, baitaratzen baititu. Azalpenaren amaieran IAKari eskaera luzatzen dio ondoko arloen inguruan premia dezan Udala: tamaina handiko hondakinen atez ateko bilketa martxan ipin dezala, kaleetan tamaina handiko hondakinak uztea debeka dezala eta bilketa zerbitzuaren kontratazioak sortaka egin daitezela. PSEko ordezkariak bilera uzten du. Eztabaida Eguzkiko ordezkariak bilerara etorritako alderdi politikoei aurkeztutako puntuen inguruko iritzia eman dezatela eskatzen die. Axier Jakak talde politikoen artean adostasuna bilatzen ari direla azaltzen du, horixe izanik ordenantza aldatzeko halabeharrezko baldintza. Eransten du egungo baldintzetan adostasuna dela hondakin politika bideratzeko modu egokiena nahiz eta aldi berean, hainbat talde eta elkarterekin, hala nola Zero Zaborrekin, elkarriketatzen ari diren. EAJko ordezkariak helburuarekin bat datorren arren Udalean nagusi den apustua bosgarren edukiontzia dela adierazten du. Bere taldeak ordenantzaren eraldaketarekin ados dagoela eranstean du baina bere apustua bosgarren edukiontzia auzoetara zabaltzea dela, gaur arte ez baita beharrezko baldintzetan sustatu. Bere aburuz, hiritarrak zein ekoizle handiak birziklatzera behartzen dituen ordenantza garatu beharra dago, bestela %60ra iristea ezinezkoa baita. Eguzkiko ordezkariak bosgarren edukiontzia erabileran Donostiako hiritarrek gaur egun oso partaidetza txikia dutela gogorarazten dio EAJko ordezkariari eta Haritzaldeko ordezkariak adierazten du ez duela posible ikusten %60a lortzea hiritarren borondate soila erabiliz. Ingurumen zinegotziak etorritakoei jakinarazten die 2003 urteaz geroztik Donostiako ordenantzaren artikulua baten bidez birziklatzea derrigortzen dela baina inoiz ez dela horrelakorik egikaritu. EAJko ordezkariak ordenantzak ordutegiak ere finkatzen dituela eta ordutegi horiek betetzen ez direla, eta hori egungo gobernuaren ardura ere dela, adierazten du.	debería ser obligatoria la instauración de un sistema con desmontaje con operarios o por la ciudadanía, por ser clave para el logro de porcentajes altos de reutilización y afirma que es factible alcanzar hasta el 20% de reutilización en caso de que sea la ciudadanía quien desmonta los muebles y superar el 30% en caso de que sean los operarios del servicio quienes lo hagan. Muestra un diagrama con un modelo de gestión integral que incorpora a los Ekocenter como infraestructuras del sistema de gestión de residuos dedicados a la preparación para la reutilización, además de la reparación. Finaliza su exposición solicitando que el CAMA inste al ayuntamiento la puesta en marcha de la recogida a puerta de voluminosos así como la prohibición del depósito de voluminosos en la vía pública y que se dividan los contratos de prestación de servicios de recogida en lotes para que pequeñas y medianas empresas puedan acceder a los mismos y sea posible desagregar la recogida de voluminosos de la recogida del resto de fracciones. El representante del PSE abandona la reunión. Debate El representante de Eguzki solicita a los partidos políticos presentes que emitan su opinión respecto a las temáticas abordadas. Axier Jaka explica que se está buscando el consenso entre los grupos políticos por tratarse de una condición indispensable para la modificación de la ordenanza y porque el acuerdo es la mejor manera para llevar la política de residuos en las condiciones actuales, lo cual no es impedimento para que no se estén manteniendo interlocuciones con distintos grupos y asociaciones como Zero Zabor. El representante del PNV manifiesta que coincide con el objetivo pero que la apuesta mayoritaria en el ayuntamiento es la del quinto contenedor. Añade que su grupo comparte la modificación de la ordenanza si bien su apuesta es ampliar a barrios el quinto contenedor, dado que hasta hoy no ha sido impulsado en las debidas condiciones. En su opinión es necesario desarrollar una ordenanza que obligue a reciclar tanto a la ciudadanía como a grandes productores, dado que en otro caso no es posible llegar al 60%. El representante de Eguzki recuerda al representante del PNV la baja participación actual de la ciudadanía de Donostia en la utilización del quinto contenedor y el representante de Haritzalde afirma que no ve posible
---	---

Eguzkiko ordezkariaren iritziz hiritarra gaur egun gogoak ematen diona egiten ohituta dago eta alderdi politiko guztiak direla egoera horren ardura kide. Ingurumen zinegotziak aditzera ematen du hondakin politika iraunkor bat martxan jartzeko adostasun politiko zein soziala beharrezko direla, ardura balio gisa duela. Bere iritziz, isunak ez dira portaera aldaketa lortzeko bide nagusia. Ezartzen den sistemak zaborra uzten duen pertsonaren identifikazioaren eta ongi egiten duenaren saritzearen bidetik joan behar du eta, bidenabar, hirugarrenek sortzen duten zikinkeria onduz ez kutsatzeko hiritarrak duen eskubidea aipatzen du. Javier Pradinik, Iruñeko tamaina handiko bilketa sistema gogora ekarriz, hiritarrak emaitzak positiboak diren neurrian erantzuten duela gogorarazten die etorritakoei eta, beraz, zigortzeaz gain garrantzitsua dela sustagarriak eskaintzea. EAJko ordezkariak adierazten du, sistema bat ala bestea hautatzen dela ere, behartzeko neurriak ere aplikatu behar direla, %60ra iristeko hiritarren gehiengoaren inplikazioa behar baita. Emauseko Begoña Cavaleirok dio sistemak birziklatzen duenari pizgarria eskaini behar diola eta zigortu egiten ez duenari. EAJko ordezkariaren iritziz hori ez dago hautatzen den sistemaren esku zeren eta sistema guztiek izan baititzakete sortzailea identifikatzeko mekanismoak. Eguzkiko ordezkariak Udalak aurkeztutako neurri sorta anekdotikoak direla adierazten du eta guztien artean ez dutela birziklapen tasaren %5 ere osatzen eta EAJren bosgarren edukiontzia inguruko Amara eta Gros auzoetako proposamenarekin ez dela %4a erdiesten. EAJko ordezkariak argitzen du gaur egun derrigortasunik ez dagoelako dela hori horrela. Ingurumen zinegotziak adierazten du prebentzio ekintzak oso baliagarriak direla ez bakarrik zuzenean lortzen den hondakin murrizketarengatik baizik eta jarrera aldaketarako eredu izan daitezkeelako. Haritzaldeko ordezkariak egungo olio bilketaren sistema beste material gehienetara zabal dadila proposatzen du eta, era horretara, hiritarrek, olio eramaten dutenean gainontzeko materialak ere eramango lituzke eta, ondorioz, birziklatzen dena bistaratuko litzateke. Javier Pradini Emauseko ordezkariaren iritziz birziklapenaren gaian arlo sinpleenak albo batera utzi eta ahaleginak arlo zailenak konpontzeko egiten dira. Tamaina handiko hondakinen zatikia gainontzekoak	asegurar el 60% haciendo uso únicamente del voluntarismo de la ciudadanía. El concejal de medio ambiente informa a los presentes que un artículo de la ordenanza de Donostia recoge la obligatoriedad reciclar desde 2003 pero que sin embargo nunca se ha materializado. El representante del PNV indica que la ordenanza fija también horarios, que no se cumplen, lo cual es también responsabilidad del gobierno actual. El representante de Eguzki opina que la ciudadanía actualmente está acostumbrada a hacer lo que le viene en gana y que de ello son corresponsables todos los partidos políticos. El concejal de medio ambiente afirma que para poner en marcha una política de residuos sostenible son necesarios tanto el consenso político como el social, con la responsabilidad como valor. En su opinión, la vía de las sanciones no debería ser la vía principal para el cambio en las conductas. El sistema que se implante debe ir por la vía de la identificación de la persona que deposita la basura y de la bonificación de quien lo hace bien a la vez que hace mención al derecho de la ciudadanía de no sufrir contaminación por la suciedad generada por terceros. Javier Pradini, haciendo referencia al sistema de recogida de voluminosos de Pamplona, recuerda a los asistentes que la ciudadanía responde en función de que los resultados sean positivos, además de penalizar es, por lo tanto, importante plantear estímulos positivos. El representante del PNV afirma que se adopte el sistema que sea, se deben aplicar también medidas coercitivas dado que para llegar al 60% es necesaria la implicación de la mayor parte de la ciudadanía. Begoña Cavaleiro de Emaus afirma que el sistema debe incentivar a quien recicla y penalizar a quien no lo hace. En opinión del representante del PNV ello no depende del sistema que se adopte dado que todos los sistemas pueden tener mecanismos para identificar al generador. El representante de Eguzki opina que la batería de medidas presentadas por del ayuntamiento resultan anecdóticas, no llegando a sumar entre todas ellas ni el 5% de reciclaje, y que con las propuestas del PNV del 5º contenedor en los barrios de Amara y Gros no se alcanza el 4%. El representante del PNV alega que esto es así porque
--	--

bezain korapilotsua ez dela eransten du. Eguzkiko ordezkariak, soilik garbitasun eta estetika arrazoiak direla eta, Nafarroan egiten den era berean, zikinkeria kalean uztea debekatzen duen ordenantza bat onatu eta ondoren ordenantza hori bete araz dezatela deztatela eskatzen die alderdi politikoei. Emauseko Javier Pradinik azaltzen du Iruñean hiritarrei ez zaiela zerbitzua kobratzen eta hauek hondakin tasa bidez soilik ordaintzen dutela. EAJko ordezkariak egungo legedia bigunegia dela adierazten du eta egun gertatzen direnak, zaborra hirugarrenek manipulatzeko alegia, ez dutela gertatu behar Ingurumen zinegotziak azaltzen du lege haustek fiskalizatu egiten direla egun. Hala ere, ez direla guztietara ailegatzen egungo sistema zabor zatikiaren bilketan oinarrituta dagoelako. Eransten du behartzeko neurriak erabili erabiltzen dituztela baina ez dutela bide hori bakarrik sustatu nahi. Eguzkiko ordezkariak iradokitzen du duela 2 urte gordetako diru sail bat aurten Alde Zaharreko bilketa aldatzeko erabil daitekeela. 4. Norberak lekarkeena Haritzaldeko ordezkariaren iritziz Igarako campingaren proiektuan metodologia ez da betetzen ari, dagozkien baimenik gabe ekin baitzaie lanei. Bestalde, etorritakoei gogorarazten die aurreko bileran GR21aren mantenua noren esku dagoen. Ingurumen zinegotziak lan hori Udalarik dagokiola erantzuten dio. Haritzaldeko ordezkariaren aburuz Igeldo eta Mendizorrotzeko goialdeak dira esku hartze onargarriak jasotzeko aukera dauzkaten eremuak. GR21 egiteko alternatiba desberdinak dauden arren, behe aldeko eremuak natur zaleek soilik erabiltzekoak izan behar dute bere iritziz. Ingurumen zinegotziak jakinarazten du biharamunean GR21en proiektua ikusteko eskaintza bidaliko dela eta, horrekin batera, erantzunak 10 eguneko epean bidaltzeko eskaera egingo dela. Igarako lanei dagokienean, zigor espedienteak zabaltzeko dela eransten du. Haritzaldeko ordezkariak ea Ingurumen Departamentuak Miramongo Parkearen inguruan aurre ideiarik baduen galdetzen du eta hainbesteko gastua egitea gehiegizkoa iruditzen zaiola eransten du. Aurre ideiarik egonez gero,	actualmente no existe obligatoriedad. El concejal de Medio Ambiente explica que las actuaciones de prevención son muy necesarias no solo porque conllevan una reducción en la generación de residuos sino que porque pueden llegar a ser ejemplarizantes para el cambio de actitud. El representante de Haritzalde propone que se extienda el sistema actual de recogida de aceite a buena parte de los otros materiales, de modo que la ciudadanía, al igual que lleva el aceite, realice la aportación del resto de materiales, quedando a la vista lo que se recicla. Javier Pradini de Emaus opina que en la cuestión del reciclaje se dejan de lado los aspectos más sencillos y se centran los esfuerzos en los más complejos, añadiendo que la solución de la fracción de residuos voluminosos no es tan compleja como la de otras fracciones. El representante de Eguzki solicita a los partidos políticos que, tan sólo por razones de limpieza y estética, se apruebe una ordenanza que prohíba dejar la porquería en la calle, del mismo modo que se hace en Navarra, y que se haga cumplir después dicha ordenanza. Javier Pradini de Emaus explica que en Navarra no se cobra a la ciudadanía por el servicio, y que ésta tan sólo paga a través de la tasa. El representante del PNV manifiesta que la legislación actual es demasiado laxa y que no deben concurrir las circunstancias que se dan actualmente como la de que la basura sea manipulada por terceros. El concejal de Medio Ambiente explica que actualmente se fiscalizan las infracciones pero que, sin embargo, no se llega a todo puesto que el sistema actual se sustenta en la recogida de la basura. Añade que si bien se aplican medidas coercitivas no desean potenciar éstas. El representante de Eguzki sugiere que sería posible utilizar una partida presupuestaria guardada hace 2 años para cambiar el tipo de recogida de residuos que se lleva a cabo en la Parte Vieja. 4. Ruegos y preguntas El representante de Haritzalde opina que en el proyecto del camping de Igara no se está cumpliendo la metodología dado que se han empezado obras sin los pertinentes permisos. Por otro lado, recuerda a los asistentes que en la
---	--

hurrengo bileran horri buruz hitz egin dadila iradokitzen du. Haritzaldeko ordezkariak, pasa diren urteetan Martutene, Molinao eta Zubietan buruturiko zuhaitz mozketak kontutan izanik, mozketan horien arduradun direnek Aieten burutu berri denari buruzko kexak aurkeztea bidezko iruditzen ez zaiola adierazten du. Haritzaldeko ordezkariak Planeamenduaren Aholku Kontseiluak hilabete bukaeran bilera ospatuko duela jakinarazten du eta bere iritziz bertan hitz egiten dena IAKera eramateko mekanismo alternatiboak badirela esaten du. EAJko ordezkariak Kontseiluari Donostiako autobusetan biodieselaren erabilerari uko egin izanaren inguruan iritzia eman dezala eskatzen dio, ingurumen garrantzia duen gaia baita. Gai hau IAKaren hurrengo bilera batean eztabaida dadila eskatzen du. ATEAko ordezkariak, animalien babes legea gogora ekarriz, Udalak animaliadun zirkorik hirian onar ez dezala eskatzen du. Eransten du animaliak erabiltzea legala ez dela, animaliei ematen zaizkien tratu txarrak direla eta. Ingurumen zinegotziak udalak interpretazio horren uste berekoa dela adierazten du. Duela urtebete Udalbatzan ideia horretan oinarritutako adierazpen baten inguruko bozkan beste taldeek aurka bozkatu zutela gaineratzen du, ondorioz ezin izan dutela urrats hori egin. Legearen interpretazioari dagokionean, ingurumen zinegotziak eransten du bilera honetan talde politiko gehiagoren ordezkariak egon beharko luketela eta beren iritzia IAKaren baitan adierazi beharko luketela. ATEAko alderdi politiko desberdinei IAKen aurrean beren iritzia aurkeztera etor daitezela eska diezaietela iradokitzen du. Haritzaldeko ordezkariak Santa Katalinako kolektorearen lanen inguruan parte hartzeko aukera jaso ahal izateagatik esker onak emateko aprobetxatzen du. Bestalde, mantenuaren gai soilari helduko liokeen Aholku Kontseilu bat sor dadila iradokitzen du. Ingurumen zinegotziak azaltzen du ez dutela horrelako kontseilurik sortzerik aurreikusten, ez eta udal departamentuen ispilu den Kontseilu egiturarik sortzerik ere. Eransten du une honetan kontseilu desberdinen berrikuspene egiten ari direla, orain daudenak gehiago dinamizatu eta aholku iturri izateko helburuz. Mantenua lantzeko beste gune eraginkorrak egon daitezke bere aburuz.	sesión anterior se preguntó a quién corresponde el mantenimiento de la GR21, a lo cual el concejal de medio ambiente responde que esta tarea corresponde al ayuntamiento. El representante de Haritzalde opina que las zonas altas de Igeldo y Mendizorrotz son las que admiten intervenciones más admisibles. Añade que existen muchas alternativas para la GR21 pero que las zonas bajas deben ser para los naturalistas. El concejal de medio ambiente informa que el próximo día se enviará el ofrecimiento para poder ver el proyecto de la GR21 y que a la vez se expresará el requerimiento de que las respuestas sean enviadas en el plazo de 10 días. Añade que en relación a las obras de Igara se ha abierto un expediente de penalización. El representante de Haritzalde pregunta si el Departamento de Medio Ambiente del ayuntamiento tiene alguna idea previa en relación al Parque de Miramón y añade que entiende que es excesivo incurrir en semejante gasto. Sugiere, que en el caso de que haya una idea previa, se hable de ello en la próxima sesión. El representante de Haritzalde, tras recordar las talas realizadas en años pasados en Martutene, Molinao y Zubietan, alega que no es procedente que las personas responsables de aquellas talas expongan quejas por la tala realizada en Aiete. El representante de Haritzalde informa que el Consejo Asesor de Planeamiento tiene reunión a finales de mes y opina que existen mecanismos alternativos para trasladar al CAMA lo que se hable allí. El representante del PNV solicita al Consejo Asesor que exprese su opinión en torno a la renuncia a la utilización de biodiesel en los autobuses de Donostia dado que se trata de una temática con relevancia ambiental. Solicita asimismo, que se aborde este tema en una próxima sesión del CAMA. La representante de ATEA, haciendo referencia a la ley de protección animal, solicita que el ayuntamiento no admita la actividad de circos con animales en la ciudad dado que la utilización de animales es ilegal debido al maltrato que soportan. El concejal de Medio Ambiente expresa que comparte dicha interpretación, si bien, hace un año se votó una declaración basada en esa idea que no logró el apoyo del resto de grupos y, en consecuencia, no salió adelante. Añade que en lo que respecta a la interpretación de la ley, los representantes de otros grupos debieran estar presentes en la reunión para
---	---

Eguzkiko ordezkariak Loiolako lohiak nora eramaten dituzten eta zein ezaugarri dituzten informa dezatela eskatzen dio Hiri Azpiegituren eta Zerbitzuen zinegotzi den Nora Galparsori. Bilera amaitzen da	expresar su opinión. La representante de ATEA sugiere que se convoque a los distintos partidos para que acudan al CAMA para expresar su opinión. El representante de Haritzalde aprovecha la reunión para expresar el agradecimiento por haber obtenido la posibilidad de participar en relación a las obras del colector de Santa Catalina. Por otro lado, sugiere la posibilidad que se cree un Consejo Asesor que aborde la temática particular del mantenimiento. El concejal de Medio Ambiente explica que no hay prevista la creación de un consejo en esa materia ni tampoco crear una estructura de consejos asesores municipales que sea espejo de la propia estructura administrativa del Ayuntamiento. Añade que actualmente se está llevando a cabo la revisión de distintos consejos con objeto de dinamizarlos y lleguen a constituir espacios reales de asesoramiento. En su opinión, puede haber otros espacios más eficientes para abordar la temática del mantenimiento. El representante de Eguzki emite la solicitud a la concejala de Infraestructuras y Servicios Urbanos Nora Galparsori para que se informe del destino de los lodos de la depuradora así como de su caracterización. Finaliza la reunión
--	---